Osteguna, Martxoak 1

**HITZALDIA:**
Propuestas del feminismo frente a la dictadura del capital.
Feminismoaren proposamenak kapitalaren diktaduraren aurrean.

Hizlariak: Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga

Lekua: La Bolsa Udaltegia, 19:00etan

Asteazkena, Martxoak 7

**KONTZERTUA:**
Olaia Aretxabaleta eta Guille

Lekua: Kalderapeko 20:00etan.

Osteguna, Martxoak 8

**MANIFESTAZIOA**,
19:30tan Arriagan.

**MARTXOAK 8KO KOORDINADORA FEMINISTA:
BIZKAIKO EMAKUME ASANBLADA, BILGUNE FEMINISTA,
MUGARIK GABE, MUNDUBAT, FEKOOR, COORDINADORA
DE ONGDS DE EUSKADI, CCOO, ELA, ESK, LAB,
STEE-EILAS, UGT, EZKER BATUA, ALTERNATIBA.**

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

2012

# Martxoak 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
DIA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

# MURRIZKETAK GORA TA BEHERA EMAKUMEOK KALERA



## MURRIZKETAK GORA TA BEHERA EMAKUMEOK KALERA!

Iaz, leku berdinean, krisiari buruz sinesterazi nahi zizkiguten gezurrez ohartarazten genuen feministok. Arreta deitzen genuen erakunde eta hierarkia ekonomikoek krisitik ateratzeko aurrera eramandako errezeta neoliberal eta atzerakoiez.

Leku honetan bertan, ez zela momentuko krisi bat adierazten genuen, ez zela koiuntura krisia, emakumeongan aparteko eraginak zituela, eta gure ekintza kolektibo eta eraldagarrirako deialdia luzatzen genuen. Orduan garbi genuen, emakumeok kalera atera behar ginen.

Urtebete pasatu da, eta hemen jarraitzen dugu gezur berdinekin, irtenbide berdinekin edo are txarragoekin. Hemen jarraitzen dugu erreformetatik murrizketetara, murrizketetatik erreformetara eta buelta berdinera. Hemen jarraitzen dugu, eskubideen sarraskian, oinarrizko zerbitzu publiko eta gastu sozialen murrizketekin, kapital handiaren onurarako diren neurriekin eta biztanlegoaren gehiengoa txirotuz eskrupulurik gabe.

Gainera, botere politikoaren muturreko aurpegirik kontserbadoreena dotore janzten da berriz ere eta gure aurka doa: abortoa kode penalera bueltatuko al da? Dependentzi legea izoztuko al da? Zerbitzu publikoen murrizketak emakumeok "etxeko zaintzaile" bezela "berreskuratuko" al gaituzte?... Genero berdintasunerako erakunde eta zerbitzuak desegiten ari dira.., dirudienez ez ziren lehentasunezkoak, beraien espedientea betetzeko besterik ez...

Guzti honen aurrean, guk zer esaten dugu? Zer diogu feministok?

Gaur MURRIZKETEI BA!! esaten diegu, zoritxarrez patriarkatua eta kapitalismoa ez daudelako krisian eta beraiengan murrizketak edota ezabaketak nahi ditugulako.

MURRIZKETEI BA!! Kapital handiaren, bankuen eta merkatuaren berrindartzera bideraturiko fondoen murrizketari bai! Kapitala bizitzaren erdigunetik atera nahi dugulako.

MURRIZKETEI BA!! Eliza katolikora bideraturiko fondoen murrizketei bai!. Estatu laikoa aldarrikatzen dugulako eta errosarioak gure obarioetatik kanpo ateratzea nahi dugulako behingoz.

MURRIZKETEI BA!! Gastu militarraren murrizketari bai! Indarkeria eta gerrarik gabeko bizitza baten eskubidea aldarrikatzen dugulako.

MURRIZKETEI BA!! Estatuko segurtasun indarren murrizketei bai! Gaua eta kaleak gureak direla aldarrikatzen dugulako baina ez estatu polizialetan oinarriturik.

MURRIZKETEI BA!! Monarkiari eta klase politikoaren bizi osorako pentsioen ordainketara zuzenduriko fondoen murrizketei bai! Gu, prekariak garen heinean, nahikoa dugulako gure buruak mantentzen.

Orduan, zer egingo dugu guk? Zer egingo dugu gaur hemen berriz gaudenok, iazko eta aurreko urteetako eskakizun eta alerta berdinekin?

Bizitza erdigunean jartzen duen beste jendarte eredu sozial eta ekonomiko bat exijitzen jarraituko dugu, krisi sistemiko honen benetako irtenbideen parte den feminismoaren premia aldarrikatuz.

Erreformak, murrizketak, mobilizazioak eta greba orokorrak aurrera...
Emakumeok kalera!

MURRIZKETAK GORA TA BEHERA
EMAKUMEOK KALERA!





## MURRIZKETAK GORA TA BEHERA EMAKUMEOK KALERA!

El año pasado, en este mismo lugar, las feministas alertábamos de las mentiras que nos querían hacer creer sobre la crisis. Llamábamos la atención sobre las recetas neoliberales y reaccionarias que instituciones y jerarquías económicas estaban adoptando para salir de la misma.

En este mismo lugar, señalábamos que la crisis no era coyuntural, que tenía impactos desmedidos para las mujeres, y llamábamos a nuestra acción colectiva y transformadora. Ya entonces lo teníamos claro, las mujeres debíamos salir a la calle.

Ha pasado un año, y aquí seguimos con las mismas mentiras, con idénticas o incluso peores recetas. Aquí seguimos, de reformas a recortes, de recortes a reformas y tiro porque me toca. Aquí seguimos, en plena sangría de derechos, con recortes en gastos y servicios públicos básicos, con medidas que sólo benefician al gran capital y nos empobrecen sin escrúpulos.

Además, la cara más ultraconservadora del poder político se viste de nuevo de gala y empieza a arremeter contra nosotras: ¿el aborto vuelve al código penal? ¿la ley de dependencia se congela? ¿La reducción de los servicios públicos "rescatarán" a las mujeres como "guardianas del hogar"?... Las instituciones y servicios para la igualdad de género se desmantelan..,se ve que no eran prioritarias, que eran para cubrir su propio expendiente...

Y ante todo esto, ¿qué decimos nosotras? ¿Qué decimos las feministas?

Hoy decimos... ¡SÍ A LOS RECORTES! porque lamentablemente el patriarcado y el capitalismo no están en crisis y sobre ellos sí que queremos recortar y/o eliminar.

¡SÍ A LOS RECORTES! de los fondos dirigidos a recuperar al gran capital, a los bancos y al mercado. Porque nosotras queremos sacar al capital del centro de la vida.

¡SÍ A LOS RECORTES! de los fondos que se destinan a la Iglesia católica. Porque nosotras reivindicamos un estado laico y que por fin saquen los rosarios de nuestros ovarios.

¡SÍ A LOS RECORTES! de los gastos militares. Porque nosotras reivindicamos el derecho a una vida libre de violencia y guerras.

¡SÍ A LOS RECORTES! en fuerzas de seguridad del estado. Porque nosotras reivindicamos que la noche y la calle también son nuestras, pero no a base de estados policiales.

¡SÍ A LOS RECORTES! de los fondos destinados a la monarquía, y a las pensiones vitalicias de la clase política. Porque nosotras, las precarias, bastante tenemos con mantenernos a nosotras mismas.

Entonces, ¿qué vamos a hacer nosotras? ¿Qué vamos a hacer las que estamos hoy aquí, nuevamente, con las mismas demandas y alertas que el año pasado, y el anterior, y el anterior?

Seguiremos exigiendo otro modelo social y económico que ponga la vida en el centro y reivindicando la urgencia del feminismo como parte de las soluciones a esta crisis sistémica.

Haya reformas, haya recortes, movilizaciones y huelgas generales
¡¡Las mujeres a las calles!!

MURRIZKETAK GORA TA BEHERA
EMAKUMEOK KALERA!

